

ESPAÑA: 1808-1996. EL DESAFIO DE LA MODERNIDAD

Juan Pablo Fusi eta Jordi Palafox
Espasa-Calpe, Madril, 1997

Azken aldi honetan mota honetako liburu argitalpenak ugalduta dira: Espainiaren gertuko historiaren berrinterpretazio-saio zabal batez hitz egin dezakegu. Halako ahalegin bat ikus daiteke bai Espainiaren historia orokorraz ari diren liburuetan (horietako baten batek, historia-liburu oso ohikoa ez dena, sekulako salmenta-arrakasta lortu zuelarik)¹, bai soilik gaur egungo historiak ari direnetan. Hauetako bat dugu bestalde ezaugarri desberdintzailerik ere baduen Juan Pablo Fusi eta Jordi Palafox-en *España: 1808-1996. El desafío de la modernidad* hau.

Lanaren deskribapen labur bat egitearren, liburu hau sarrera eta epilogo xumeez inguratutako hamaika atalek osatzen dute, oinarrizko bibliografia komentatua eta aurkibide onomastiko batez amaitzen delarik. Honetaz gain, zuri-beltzeko zenbait argazki eta marrazkiz horniturik dator. Liburuaren egitura argia da: atal batzuk, J. P. Fusik idatziak suposa ditzakegunak, gizarte eta politikaz aritzen dira (1, 2, 4, 6, 8 eta 10.) eta Espainiako ekonomi historia garaikidea gainerakoetan jorratzen du J. Palafoxek (3, 5, 7, 9 eta 11.). Garaieen banaketari dagokionez, bost bloketan banatuta dago: Espainia

liberalaren eraikuntzarena (1, 2 eta 3. atalak), Berrezarkuntzarena (4 eta 5. atalak), Errepublikak eta Gerra Zibilarena (6 eta 7. atalak), frankismoarena (8 eta 9. atalak) eta gaur egungo demokraziarena (10 eta 11. atalak). Garai bakoitzaren narrazioa bitan banatzen da, beraz: alde batetik, gizarte, politika, erlijio eta kulturari buruz hitz egiten zaigu eta, beste aldetik, egitura ekonomiko-sozialaren gorabeheraz. Izan ere, hauek lirakeke liburu honen ardatz biak eta R. Carrena² bezalako lan "klasikoekin" alderatuz aurki diezaikegun ezaugarri nabarmenetakoa: gizarte eta ekonomi historiari ematen zaion garrantzia Espainiaren kondaira egituratzerakoan. Hau, noski, ez da berria, eta azken hamar-hamabost urte hauetan argitaratu diren lan gehienetan modu batean edo bestean aurki dezakegun ezaugarria da³, nahiz eta, aurrekoetan bezala, garapen ekonomikoaz duen ikuspegia guztiz klasikoa, industrializatzailea eta produktibista baino ez den.

J. P. Fusi ezaguna da oso espainiar mundu intelektualean. Donostiarra, Madrilgo Unibertsitate Complutenseko Historiako katedraduna, XIX. mendeko euskal langile mugimenduari buruz ikertzen hasi zen, nazionalismoari

1. Batipat F. García de Cortázar eta J. M. González Vesga-ren *Breve historia de España*-z ari naiz (Madril, 1993).

2. *España 1808-1975*, Bartzelona 1982.

3. Pare bat adibide aipatzearren, hor ditugu Santos Juliá-ren *Historia económica y social moderna y contemporánea de España*-ren bigarren liburukia (Madril, 1988) eta M. T. Pérez Picazo-ren *Historia de España del siglo XX* (Bartzelona 1996).

eta frankismoari buruzko bere lanak nahikoa ezagunak badira ere. Hala ere historialaritzaren zirkuluetatik kanpo seguraski Madrileko Biblioteka Nazionalako zuzendaritzan egon zen garaian egin zen famatu (1986-1990). Gizarte, politika eta kulturaren historia garaikidean aditua, partidu sozialistaren agintealdiko intelektualitatearen ikurretako bat izan zela esan dezakegu⁴. J. Palafox ez da agian hain entzuna, ekonomi historiaren gremiotik kanpo bederen. Valentziako Unibertsitatean katedradun, XX. mendearen lehen hereneko ekonomia izan du aztergai nagusi, batez ere II. Errepublikaren garaia eta gorabeherei dagokionez⁵.

Nahikoa sintetikoa den liburu hau, estilo onez idatzia egoteaz gain, irakurteraza da eta Espainiako historia garaikidearen ikuspegi zabala emateko gai dela uste dut: ikasgairako sarrera egokia bilaka daiteke, beraz. Hala eta guztiz ere, irakurle honen ustez dituen ezaugarri batzuk oso kontuan hartu beharrekoak dira. Lehenengoa, azken aldi honetan eta Espainiaren ibilbide ekonomiko ustez dizdiratsua- ren ondorioz-edo nagusitu den baikortasun historikoaren ildoan kokatzen dela argi eta garbi, Espainia *anomalía* bezala tratatzen zuten ikuspegietatik urrunduz beraz. Egileek hasieratik inolako zalantzarik gabe baieztatzen dutenez,

Este libro parte de una visión muy distinta: dicho con toda rotundidad, no admite la excepcionalidad española. En

otras palabras, consideramos a España como un país “normal”. Esto no significa minimizar los problemas españoles en la historia... (11. orr.).

Izan ere, ikuspegi hau izenburutik hasita soma dezakegu, bizkor konturatu zen adiskide batek esan zidan bezala: modernitateak Espainiari plateiatutako “erronkaz” ari baitzaizki- gu, bati baino gehiagori A. J. Toyn- bee zibilizazioen historialari ingelesa gogora ekar diezaiokeen kutsu bate- kin. J. Fontanak historialari kontserba- tzaile honen lanari buruz esan duenera joz, bere proposamena zibilizazioen morfologia jakin batean datza, «morfología que encajona el curso entero de la historia de la humanidad en una sucesión de veintinueve “sociedades” o “civilizaciones”, que nacen como consecuencia de unas incitaciones, de unos factores adversos a superar que estimulan una respuesta por parte de los hombres. Si la incitación es demasiado dura, puede hacer que aborte la respuesta; si se encuentra en el límite justo de la tolerancia, hará que quede frenada o detenida»⁶. Ikusiko dugun bezala, Palafoxentzat eta, azken finean oso hezkuntza britainiarra izan duen Fusirentzat, Espainiaren kasuan emaitza ezin da inondik ere “abortu” edo “geldiune” bezala zehaztu.

Zerikusi gutxi du ikuspuntu honek, beraz, aurreko hamarkadetan nagusi zen *porrotaren* interpretazioarekin eta, ondorioz, porrot ekonomikoaz hitz egitea zilegi ez bada, gauza berbera gertatuko da –orokorrean behintzat–

4. Bere lan batzuk aipatzea komenigarria da: *Política obrera en el País Vasco (1880-1923)* (Madril, 1975); *El País Vasco. Pluralismo y nacionalidad* (Madril, 1984), *Franco. Autoritarismo y poder personal* (Madril, 1985).

5. Palafox-en libururik ezagunena *Atraso económico y democracia. La economía española y la Segunda República (1892-1936)* dugu (Bartzelona, 1992).

6. J. Fontana, *Historia. Análisis del pasado y proyecto social*, Bartzelona 1982, 162-163.

politikarekin eta gizartearekin⁷. Ildo honetatik deigarria da, adibidez, bestalde ditxosozko aurtengo urteurrenaren inguruan geroz eta ohikoagoa bihurtzen ari den Berrezarkuntza garaian (1875-1923/31) aldarrikapena. Kazikismoa eta askatasun-urritasuna aipatzeari uko egiten ez bazaio ere, ia-ia zokoratzen direla esan dezakegu, sistemaren beste *bertute* handiago batzuk azpimarratzen diren bitartean: egonkortasun politikoa eta txandaketa baketsua, Cánovasen estatu- eta politikari-sena⁸, erregenerazioaren aldeko jarrerak eta Zilarrezko Aro kulturala, “Instituto de Reformas Sociales” eta gobernuaren gizarte-politikaren lorpenak... Honek ez du esan nahi arazoak eta alderdi ilunak ahazten direnik (hauteskunde-prozesuen egitura-akatsak, Aste Tragikoa, 1898ko hondamendia...); aipatzen jarraitzen dira, noski, baina lehen hein handi batean berauek kontakizunaren ardatza osatzen bazuten, gaur egun egileek bigarren maila batean kokatzen dituzte. Kontrastea Espainian aurrera eraman nahi izan ziren bi errepublika-proiektuen (eta batik bat bigarrenaren) desegokitasunak, gizarte-oinarri gabeziak eta, azken finean (*quod erat demonstrandum*), porrotek frogatzen dute. Ikuspuntu honetatik ez

dirudi egileek lehenengo orrialdeetan azaltzen duten asmoarekin («Pensamos, además, que lo sucedido en [la historia de España] no fue inevitable: los hechos, las cosas pudieron haber sido casi siempre de otra manera», 12. orr.) bat egin dutenik, lan guztian zehar behintzat⁹.

Edozelan ere, nabaria da egileen espezializazioa 1875tik aurrerako Espainiako historiaren epealdietan, bai Fusik bai Palafoxek XIX. mendeko lehenengo hiru laurdenez egokiak diren baina aldi berean nahiko ohikeriazko atalak eraikitzen baitituzte. 1808-1840 arteko epealdiak, ekonomiaren ibilbideari dagokionez, nahikoa ilun agertzen jarraitzen du, gutxien ikertu dena gogoratu behar badugu ere; hala eta guztiz ere, deigarria da ikustea berriro ere, lurraren jabetzaren egituretan gertatzen diren aldaketetan, garrantzi gutxi ematen zaiela *desbinkulazio* prozesuaren ezaugarriei, bestalde hain zabalki azaltzen ez zaigun desamortizazioari buruzko azpiatalean¹⁰.

1874-1931 epealdiko ekonomi garapenaren kontakizunak, ordea, azken urteetako ikerketa ugariagoen emaitzak jasotzen ditu, nahikoa atal

7. Espainiaren garapen ekonomikoaren eta batez ere industrializazioaren porrotaren errealitate historikoaz 1960 eta 1970.eko hamarkadetan nahikotxo idatzi bazen ere, J. Nadal-ena bilakatu zen ikuspegi kanoniko, ik. *El fracaso de la Revolución Industrial en España 1814-1913*, Bartzelona 1975. Paradigma hau zalantzan jartzen hasi zen 1980.eko hamarkadan. Uhin “baikor” honen azken emaitzetako bat D. R. Ringrose-ren *El mito del fracaso, 1700-1900* litzateke (Madril, 1996).

8. Cánovasen irudiaren erreskatearen kasua bereziki adierazgarria da; ikus, esaterako, biografikoa barik ia hagiografikoa kontsidera daitekeen J. L. Comellas-en *Cánovas del Castillo* liburua (Bartzelona, 1997) edo Televisión Españolak 1997ko amaiera aldera emititutako politikari honi buruzko *biopic*-a.

9. Bestalde, egia da, R. Carri jarraituz, Fusirentzat II. Errepublikaren porrotaren sustraiak Primo de Riveraren estatu-kolpeak ekarritako Berrezarkuntza-sistemaren hausturan egongo liratekeela: «La Dictadura [de Primo] no fue, por tanto, inevitable. Cambió, sin embargo, y decisivamente, el curso de la historia española. Como a su modo intuyó al hilo de los acontecimientos Antonio Maura, la Dictadura trajo la República, y la República, la guerra civil. De no haberse producido el golpe (...) las cosas podrían haber sido ciertamente de otra manera» (192 orr.). Hots, nolana ere, II. Errepublikaren porrota (edo existentzia-eza) saihestezina zen.

10. Berriro ere, diot, gauza larriagoak argitaratu direlako: adibidez, zabalagoa den G. Tortellaren eskuliburuan, *desbinkulazio* eta *desamortizazio* kontzeptuak ez dira bereizten ere, ikus *El desarrollo de la España contemporánea. Historia económica de los siglos XIX y XX* (Madril 1994), 44 or.

argigarria eratuz. Hala ere, atal hone-
tan (eta oro har, ekonomiari buruzkoe-
tan) zerbait azpimarratzearren, neoli-
beralismoaren gorakadaren testuingu-
ruan espainiar historiografian geroz eta
eraginkorrago egin diren tesi libregan-
bistei¹¹ zuzendu zaien kritika partziala
azpimarratu behar dugu. XIX. mendean
zeharreko eta batez ere 1891.etik
aurrerako merkataritza- eta mugasari-
politika Espainiaren garapenerako guz-
tiz ezkorra izan zela diotenen aurrean,
Palafoxek zera diosku,

La política arancelaria española no favoreció el crecimiento sostenido de las actividades del sector secundario capaces de generar mayores efectos inducidos y potenciar el cambio estructural (...) [pero] esta política protectora no impidió el aumento de la diversificación de las importaciones con un incremento sustancial de la maquinaria y, en el largo plazo, tuvo un efecto colateral positivo al favorecer la instalación en España de empresas extranjeras que fomentaron el aprendizaje de nuevas tecnologías (237 orr.)¹².

Francoren diktaduraren epealdiak
klasiko bihurtu den moduan aurkez-
ten zaizkigu eta berrikuntza gutxi dago,
alde horretatik garaiari buruzko liburu
arau-emailetatik aldentzen ez delarik:
jatorriko legitimitate-izpirik gabeko
1939-1975 arteko garaia, gora-behe-
rekin baina, izango genuke Espainiako
gertuko historiaren gertuaren funtsezko
anormaltasun ia bakarra. Garaiko eko-
nomi historiari dagokionez gauza ber-

bera esan dezakegu: gerra zibilaren
ondorio ekonomiko ezkorren magnitu-
deari ñabardurak egiteaz gain, Espai-
niaren atzerakuntzaren arrazoi nagu-
siak momentu honetantxe kokatzen
dira, autarkia garaiko politika ekonomi-
koan batik bat (1939-1950/59). “Desa-
rrollismoaren” onurek, egitura aldaketa
izugarriak ekarri bazituzten ere (indus-
trializazioaren eta, finean, moderniza-
zio-prozesuaren azkena), nazioarteko
abagunearekin lotzen dira.

Zalantzagarriagoak dira, ene ustez,
azkenengo bi kapituluak. Batxilergoko
eta unibertsitateko ikasketa-plan
berriek ondo erakusten duten bezala,
historialariok merkatu intelektual ber-
rien bila bero-bero abiatu gara, azken
urteetako historia geureganatu nahian-
edo. Alde horretatik perspektiba falta-
ren arriskuan erortzea ez dirudi zaila
denik. Ez dut honekin esan nahi histo-
rialariok munduko zein lekuko historian
esparru hauetan sartu behar ez dugu-
nik, baina bai kontu handiz egin beha-
rreko gauza dela, etorkizuneko
historialariek gure garaiaren ildo
nagusizat zeintzuk aukeratuko
dituzten iragartzea ariketa zaila
iruditzen baitzait (batez ere kontuan
harturik garai bakoitzean iraganari
buruz dugun ikuspegia aldatzen doala
eta, gainera, gaur egun ikuspuntu
historiko profesionaletik egiten diren
interpretazioek etorkizunekoak baldin-
tza ditzaketela). Alde honetatik, eta
gehiegi ez luzatzearen, Trantsizioa-
ren tronuratzea¹³ eta PSOEren gober-

11. Tesi hauen defendatzaile nagusien artean, ikus G. Tortella, *op. cit.*, edo ia klasiko bihurtu zaigun L. Prados de la Escosura-ren *De Imperio a Nación. Crecimiento y atraso económico en España (1780-1930)*, Madril 1988.

12. Azken batean XIX. mendeko eztabaiden jarraipena baino ez den historialarien arteko merkataritza-babesaren inguruko hika-miken artean, protekzionismoaren demonizazioaren aurkako argudiorik sakonekak artikulu honetan aurki ditzakegu: J. Nadal eta C. Sudriá, “La controversia en torno al atraso económico español en la segunda mitad del XIX, 1860-1913”, *Revista de Historia Industrial*, 3, 1993, 190-220.

13. Bide batez: aipatu *Cánovas del Castillo* liburuaren epilogoan, Comellas, era adierazgarrian, kexu da Trantsizio garaia “Bigarren Berrezarkuntza” izendatzeko ahalegin historiografikoen arrakasta txikiak.

nuak (1982-1996) Espainiaren progresuari emandako bultzada erabakigarria dira, politika eta gizarte arloan, ezau-garririk nabarmenenak. Honek zalantzak sortzen dizkit, irakurle eta historialari bezala: alde batetik, kontu hauei zor zaien espazioa, aurreko 170 urteei eskainitakoarekin konparatuta, gehiegizkoa eta xehegia iruditzen zaidalako (oreka galtzeko arriskua dakar honek) eta, beste aldetik, baieztapen “ideologikoei” ateak irekitzen dizkielako, batzuetan bitxikeriak agertzeko beta dagoela. Adibide bat jartzearen, eta ez naiz edukiaz ari, aurreko erregeen deskribapenen estiloarekin zerikusi gutxi duen hauxe agertzen zaigu: «El Rey –un hombre alto, joven, nacido en 1938 en Roma, jovial, desenfadado, extravertido, aficionado a la navegación a vela y al esquí– impulsó desde luego el proceso de cambio hacia la democracia» (370 orr.)¹⁴.

Arlo ekonomikoan gauza berbera gertatzen da. Modernizazioaren benetak o sublimazioa sozialistekin gauzaten da, Espainiako arazo fiskalak lehendabizikoz zuzentzen hasten den erreforma burutzen da, Europarekin lortzen den batasun ekonomikoaren alde baikorrak azpimarratzen dira. Noski, *arazoak* ere aipatzen dira bai-

na, berriro ere, berauetan oin-puntetan sartzen dira: Moncloako itunak, langabezia, europar politika komunak industrian eta nekazaritzan izandako ondorioak, ustelkeria, atzerriko inbertsioen alde ilunak eta, noski, autonomi estatutuen zabalkuntzak erregioen arteko berdintasun eta orekari jarritako zalantzak. Balantzea, nolahi ere den, dena delakoa dugu eta, historialariaren objektibitate osoan batere sinisteduna ez banaiz ere, ageriegia dela iruditzen zait. Aukeran, nahiago ia dudarik gabe ideologikoa ere den P. Vilar garaiari buruz Trantsizioaren hastapenetan bertan egiten saiatu zen analisi-iragarpen xumeago eta zorrotzagoa (bai asmatu, bai erratu zituenengatik ere)¹⁵.

Gauza gehiago esan daiteke komentatzen ahalegindu naizen lan honi buruz, baina ez nuke inoren pazientzia agortu nahi: funtsezkoena –batzuetan bide makurretatik abiatu banaiz ere– esanda dagoela uste dut. Edozelan ere, liburu gomendagarria da, kontuz erabili beharrekoa baina. Saiakera eta eskuliburuaren artekoa, bibliografia zabalago batek ez liokeela hainbesteko kalterik egingo pentsatzen dut, baina egia da aukera honek irakurketa errazten duela, prezio altuegiak ez bezala, bestalde.

Iban Zaldúa Gonzalez

14. Fernando VII «hombre de natural desconfiado, suspicaz y vengativo» genuen (25. orr.); Isabel II.aren izaerari buruz ezer gutxi esaten zaigu, bere neokatolizismo erreakzionarioaz gain; Saboiako Amadeoren izendapena «fue probablemente un grave error, aunque difícilmente evitable»; Alfontso XII.aren eta bere emaztearen portaerak monarkiari prestigioa eman bide zion (163. orr.), eta hauxe da dena; Alfontso XIII.arekin kontua suspertzen hasten da: «un hombre ni intelectual ni culto, a menudo imprudente y algo frívolo, pero inteligente, popular, activo –era un buen deportista– y de indudable simpatía» (178. orr). Erregegai karlisten edo Juan de Borbonen pertsonalitatez ez zaigu ia ezer aipatzen. Bestalde, –esaterako– “Hamarkada moderatu” soilaren ondoan “La gran década socialista (1982-1992)” batez hitz egiten da, epealdi berrien izendapenak proposatzerakoan sor daitezkeen zailtasunen erakusle bikain gisa. Egia esan, garai honi sozialista deitzea aukeretako bat besterik ez da: *felipismo* dezente entzun eta irakurri ahal izan dugu, adibidez, eta *sozialiberalismo* bezalako luzeago eta adierazgarriak ez dira falta, ik. J. F. Martín Seco, *¡La economía, estúpidos, la economía! (la política económica del socialiberalismo)*, Madril 1993.

15. P. Vilar, *Historia de España*, Bartzelona 1978 (eguneratutako 6. argitaraldia), 172-177.